

DEIALDIAREN
OINARRIAK

II CONCURSO-GALA
CIENTÍFICA DE NAVARRA
**SCIENCE
KAITZA**

www.sciencekaitza.com

ADIttech
CORPORACIÓN TECNOLÓGICA

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

II. LEHIAKETA ZIENTIFIKOAREN DEIALDIAREN OINARRIAK

SCIENCE II CONCURSO-GALA
CIENTÍFICA DE NAVARRA
EKAITZA

- | | |
|--------------------------------------|----------------------------|
| 1. ATARIKOA | 5. HAUTAGAITZEN AURKEZPENA |
| 2. II "SciencEkaitza" LEHIAKETA-GALA | 6. BALORAZIO IRIZPIDEAK |
| 3. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK | 7. HAUTAPEN PROZESUA |
| 4. SARIAK | 8. ALDERDI FORMALAK |

1. ATARIKOA

Ikerketa, garapena eta berrikuntza funtsezko zutarriak dira bere lurraldearen garapen sozial eta ekonomikoa lortu nahi duen eskualde ororentzat. Arlo horiek sendotzera bideratzen diren politikek aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeaz gain, lagungarriak dira jakintza eta teknologiak sortzeko, eta gizartearen erronkei eta premiei irtenbideak sortzen laguntzeko.

Ikerlari eta teknologoek hezurmamitzen dute I+G+b arloa, eta hala ere, horiek oro askotan ahaztuak gelditzen dira beren eskualdearen garapenaren alde egin duten lana eta ekarpena aitortzerakoan.

Hori dela eta, ADItech Korporazio Teknologikoak, Nafarroako Gobernuak eta bestelako entitate publikoek zein pribatuek lagundurik, antolaturiko SciencEkaitza Sari Zientifikoak lagungarriak dira Nafarroan ikerketa-lanean ari diren zientifikoek eta teknologoek aitortza publikoa eta soziala sustatzeko, eta haien proiektuak irmo babesteko.

Bi-biak, zientzia eta teknologia, jendearen bizitza blaitzen duten arloak dira, eta bi-biek gure etorkizuna baldintzatzeaz gain, funtsezkoak dira bai gizartearentzat bai jendearentzat, eta beraz, eskualdeko ekonomiarentzat ere bai. Hori dela eta, garrantzitsua da gizarte osoak, eta nafar gizarteak bereziki, aintzat hartzea bere komunitatean egiten den ikerketa, eta gauza izatea bere aurrerapen eta garapen teknologikoak lotzeko pertsona bakoitzaren ongizate partikularrekin.

Gizarte intereseko proiektua da, MECNA bereizgarriarekin aitortua.



2.

II. LEHIAKETA-GALA



ADltech Korporazio Teknologikoak, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, **SciencEkaitza Sari Zientifikoek** bigarren edizioaren deialdia egin du, **eskualdeko ekonomia eraldatzeko ahalmen handieneko ideiak nahiz ideiarik berritzaileenak** identifikatu eta aitortzeko, betiere Nafarroako espezializazio adimentsuaren (RIS3) 4 alorretako batean.

Etorkizuneko proiektuak abian jartzeko ideiak proposatu eta gidatzeko ikerlariak eta teknologoak identifikatzea dute xede SciencEkaitza Sari Zientifikoek, betiere nafar ekonomian eta industrian egiazko eraldakuntza eraginen duten proiektuak.

Halaber, SciencEkaitza Sariak bestelako helburuak dituzte, hala nola ikerketarako eta berrikuntzarako interesa sustatzea, gizartean kultura zientifikoa bultzatuz, zientziak eta berrikuntzak dakartzaten onurak erakutsita.

Ikerlari parte-hartzaile guztiek izanen dute II. **SciencEkaitza Saria** eskuratzeko aukera, hots, Nafarroako garapen sozioekonomikorako eragin berritzailearik ahaltsuena sortzeko ideiarik disruptiboen eta eraldatzaileena saritze aldera, betiere Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (RIS3) barneko alorren batean.

Proiektu irabazleak nazioarteko aitortza jasoko du, eta abian jartzen lagunduko zaio, premien arabera.

Gainera, II. SciencEkaitza Lehiaketa-Galaren 2019ren baitan, parte-hartzaileen artean, Nafarroako espezializazio adimentsuaren alor bakoitzeko ideiarik nabarmenenak hartuko dira aintzat, bai eta komunikaziorako gaitasunik handiena duen ikus-entzunezko proposamena ere, kasuan kasuko **Akezsiten** bidez.

3.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Horrela, II. SciencEkaitza Sarietara aurkezteko, parte-hartzaileak **taldeetan** aurkeztuko dira eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Taldeak **gutxienez bi kidez** osatuta egonen dira: SINAI-Nafarroako Berrikuntza Sistemako bi agente ezberdinekoak izan behar dute.
- Taldekide guztiek Nafarroan garatu behar dute beren ikerketa-jarduera.
- Lehiaketa honek Nafarroako garapen sozioekonomikorako eragin berritzaile handia izan dezaketen ideia disruptiboak eta eraldatzaileak saritzen ditu.
- Ideiek bikaintasuna, egingarritasuna eta eragina konbinatu behar dute.
- Ideiek ez dute zertan egonik merkatutik oso hurbil epe laburrean (baina baldin badaude ere, ez dira baztergarriak izanen).
- Ideiak, halaber, sorkuntzatik eta berrikuntza zientifikotik eta/edo teknologikotik planteatu behar dira.
- Kontzeptu eta aukera berriak espero dira, hainbat izaeratako ekintzak denboran garatzea eraginen dutenak, proposamenen edukiaren arabera.
- Hautagaiek beren ideiak, helburuak, eragina, etab. azaltzeko aukera dute, HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO 5. puntuan jasotakoarekin bat.
- Teknikoki, ideiak Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (RIS3) bilduta dauden 4 alor teknologikoetako batean kokatuko dira:

3.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK



AUTOMOZIOA ETA MEKATRONIKA. Helburuak dira manufaktura-industrien eraldakuntza eta espezializazioa, I+G+b arloan gehiago inbertituz, produktu bereki bat garatzeko, eta 4.0. teknologiak eta fabrikazio aurreratukoak aplikatzeko, "etorkizuneko fabrika"-ren helburu europarrak lortze aldera: eraginkorragoa, optimizatua, adimentsua eta automatizatua. Lehentasunezko jarduketa-ildoan artean nabarmentzekoak dira **garraio adimentsu eta autonomia, elektromugikortasuna, robotika eta 4.0. industria, sistema industrializatuak optimizatuz**, besteak beste.



ELIKA KATEA. Helburuak dira enpresa-eskala irabaztea, esportazioak handitzea, balio katearen baitako barne lankidetzak indartzea nafar produktu gehiago eraldakuntza eta esportazio prozesuetan sar dadin lortzeko, eta balio erantsiaren ekarpena handitzea I+G+b arloaren bidez (produktuan eta prozesuan), eta fabrikazio-teknologia aurreratuak ezartzea. Lehentasunezko jarduketa-ildoan artean nabarmentzekoak dira **nekazaritza-ekoizpen jasangarria, uzten urrutiko kontrola teledetekzio sistemen bidez (Sentinel eta dronak), robotika eta geolokalizazioa zehaztasunezko nekazaritzarako, bioteknologia, elikadura osasungarria, paketatze eta etiketatze adimentsua, eta 4.0 industriari lotutako teknologiak elikadura katean ezartzea.**

3.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK



ENERGIJA BERRIZTAGARRIAK ETA BALIABIDEAK. Helburuak dira energia-kontsumo fosila (erregaiak) murriztea eta lehengai gutxiago kontsumitzea, energia berriztagarrien ekoizpena areagotuz, energia-eraginkortasuna hobetuz, eta natur baliabideen eta hondakinen kudeaketan oinarriturik eta gorabidean diren sektoreak finkatuz. Lehentasunezko jarduketa-ildoan artean nabarmentzekoak dira **ikerketa energetikoa (biltegiatze sistemak, mikrosare elektrikoak, arlo eolikoa, eguzki-eraikuntza...)**, Bioekonomia, Smart Cities, eraikin-energia eta 4.0 industriari loturiko teknologia industria energetikoan ezartzea.



OSASUNA. Helburuak dira osasun arloko ekosistema berriztailearen eraginkortasuna hobetzea, ezagutza merkatura hobeki iristeko, sektoreko esportazioak handitzeko, eta osasun sistema hobetzera bideratutako produktu eta zerbitzu berrien prototipoetarako aukerak sortzeko. Lehentasunezko jarduketa-ildoan artean nabarmentzen dira **gaixotasun nagusien aurkako borroka (minbizia, arazo kardiobaskularrak eta metabolikoak, gaitz neurodegeneratiboak...)**, zehaztasunezko medikuntza pertsonalizatua, prebentzioa, berrikuntza arretan, farmako berri eraginkorragoetan ikertzea, eta berrikuntza teknologia medikoan, besteak beste.

4. SARIAK

SciencEkaitza Sariak nazioarteko aitortza eta omena dauka.

SciencEkaitza Sariaren bidez, Nafarroan garatzen diren zientzia eta teknologiak bultzatu nahi dira eta haien gaineko aitortza soziala sustatu. Halaber, bokazio berriak sustatu nahi dira, eta gizartearengana hurbildu jendearen bizi-kalitatea hobetuko dituzten garapenak.

Talde guztiek honako sari hauek eskuratzeko aukera izanen dute.

- **II. SciencEkaitza** Saria, Nafarroako ekonomia eta gizartea eraldatzeko eragin handieneko proposamen gisa aitortuko dena.
- **4 akzesit**, bat espezializazio adimentsuko alor bakoitzeko, sektore bakoitza berritzeko ahalmen handiena duten proposamen gisa aitortuko direnak.
 - **Automozio eta Mekatronikaren Akzesita**
 - **Elika Katearen Akzesita**
 - **Energia Berriztagarri eta Baliabideen Akzesita**
 - **Osasunaren akzesita**

- **Ikus-entzunezko Komunikazioaren Akzesit 1**, ikus-entzunezko proposamen onenari zientzia zabaltzeko, bere proiektuaren ideia eta balioak gizarteari transmititzeko potentzialik handiena erakusten duen hautagaitzarentzat.

II. SciencEkaitza Saria irabazten proiektu-idea lehentasunezkoa izanen da ADItechentzat eta ideia garatzeko babesa jasoko du, huraxe egituratzeko dituen premien arabera. Hona hemen ADItech Korporazioaren egiturak eman ditzakeen laguntza-formula batzuen adibideak:

- Aholkularitza pertsonalizatua instrumentalizaziorako, garapen proiektu zehatzak oinarri hartuta.
- Europa mailako finantza-iturriak identifikatzea proiektuaren garapen teknologikorako.
- Finantza lortzeko euskarria aipatu iturrien aldetik.
- Ideia irabazlea hedatzea.

5.

HAUTAGAITZEN AURKEZPENA

Proiektuak aurkezteko epea **2018ko abenduaren 28ko 24:00etan (ostirala) zabaldu eta 2019ko maiatzaren 10eko 24:00etan (ostirala)** bukatuko da.

2019ko maiatzaren 10era arte, proiektu guztiak **concurso@sciencekaitza.com** helbidera bidaliko dira.

Hautagaitza (talde) bakoitzak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu nahitaez, eta bere osoan, gehienez 9MB izanen dute:

- Izena emateko **galdetegia**.
- Ideiaren gaineko **txosten deskriptiboa** ingelesez (gehienez ere, 10 orrialde). Txostenak ongi jaso beharko ditu honakoekin lotuta dauden alderdiak:
 - Ideiaren deskribapena
 - Originaltasuna eta izaera berritzailea
 - Bideragarritasun teknologikoa
 - Egingarritasuna
 - Ideia proiektu egingarri bihurtzeko beharrak.

- Txostenaren **laburpena** ingelesez eta gaztelaniaz eta/edo euskaraz (gehienez, 200 hitz).
- **Bideoa** (gehienez, minutu 1ekoa). Taldeak, ikus-entzunezko hizkuntzaren berezko tresnak erabiliz, proiektuaren funtsa azalduko beharko du sormenez, jendeak, oro har, ulertzeko moduan. Bideoaren lokuzioa gaztelaniaz izanen da, eta bideo beraren 3 bertsio aurkeztuko, "Marketin Inklusibo"-ko betebeharrekin bat:
 - Azpidatziak gaztelaniaz jarrita
 - Azpidatziak euskaraz jarrita
 - Azpidatziak ingelesez jarrita

Otsail erdian (data zehazteko dago), Clavnako profesionalak **IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZA LANTZEKO LANTEGI** bat emanen diete ikerketa taldeei, ikus-entzunezko tresnak eta ereduak ikas ditzaten, zabalkundeko bideoak egite aldera.

Proiektu irabazleei buruzko bideoak II. Gala Zientifikoaren ospakizunean emanen dira, 2019ko ekainaren 19an, Baluartean. Era berean, bideo guztiak jendaurrean jarriko dira ikusgai hainbat bitartekoren/euskarriren bidez, aurreko eta ondoko egunetan.

6.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

7. puntuak zehaztu duen bezala, Ebaluazioa Teknikorako Batzordeak eta Nazioarteko Epaimahaiak **eduki zientifikoari, originaltasunari, izaera berritzaileari, eta bideragarritasun teknologiko eta komertzialari** begiratuko dio hautagaitzak baloratzeko. Honatx zer alderdi hartuko diren kontuan:

- **Taldea:** Taldearen osaera eta SINAIko zer erakundetakoak diren. Haien arteko elkarlana eragin eta bultzatu duten sinergien deskribapen laburra (orrialde bat, gehienez).
- **Sormena, Berrikuntza eta originaltasuna:** proposamenaren berrikuntza maila eta interes zientifikoa. Etorkizunean egiazki gauzatzeko aukera. Eragin sozial eta ekonomikoa.
- **Egingarritasuna:** Ideia gauzatzeko behar diren baliabideak eskura izateko gaitasuna edo aukera. Proiektua zer sektoretan kokaturik dagoen, sektore horri ekarriko liokeen balio disruptiboa.

Ikus-entzunezkoetan zientzia zabaltzeko egin den proposamenik onena ebaluatuko du CLAVNA epaimahaiak. Alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Proposamenaren orijinaltasuna.
- Ideia horren eraginkortasuna, ikuslearengan eragina eta oroitzapena sortzeko.

***Oharra:** nagusiki, ikus-entzunezko proposamenaren ideia eta planteamendua baloratuko dira; ez, ordea, horrenbestean azken emaitza, zeren azken emaitza hein handian egonen baita ekoizpen-inbertsioaren mendean.

7. HAUTAPEN PROZESUA

Hiru organo arduratuko dira hautagaitza guztiak kudeatzeaz eta akzesitak nahiz II. SciencEkaitza Saria aukeratzeaz. Hona organoak:

1. Ebaluazio Teknikorako Batzordea. Kide izanen dira ADItecheko Zuzendaritza Nagusia, ADItecheko Lankidetzak Teknologikoko eta Bikaintasuneko Zuzendaritza, eta ADItech Korporazio Teknologikoko 5 patrono. Batzorde hau honako arduratuko da:

a. Hautagarritasunaren azterketa eta atariko balorazioa. Behin aurkezpen epea itxita, hautagaitzak berrikusiko dira, oinarrian azaldutako partaidetza-irizpideak betetzen dituztela baieztatzeko. Oinarriekin bat ez datozen hautagaitzak prozesutik baztertuko dira; gainerakoak hurrengo fasera pasako dira.

b. Rankingak S3 bidez prestatzea. Hautagaitzak S3ren bidez berrikusi, ebaluatu eta sailkatuko dira, emanen duten informazioa oinarri harturik.

c. Elkarrizketa posibleak

i. Hautagaitzen epaimahaiarekin. Ideian sakontzeko beharra edo hautagaitzaren gauza batzuk argitzearren, ebaluazio panelak taldeei dei egiten ahalko die haiekin hitz egiteko.

ii. Sektore estrategikoekin lotura duten enpresekin, SciencEkaitza Sariaren "amabixi" gisa jardungo dutenak; zehazki, hautagai diren ideiek merkatuan izan dezaketen eragina eta haien egingarritasuna ebaluatuko dituzte.

2. Nazioarteko epaimahaia. Gala SciencEkaitza Galako hizlariak osatua dago. Talde irabazlea zein den erabakiko du eta sektore bakoitzeko akzesita. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da eta **SciencEkaitza** Nafarroako II. Gala Zientifikoan jakinaraziko da jendaurrean.

Nazioarteko Epaimahaiko kideek epaimahaikide izaterik ez badute, ebaluazio teknikorako batzordea arduratuko da azken saria erabakitzeaz.

3. CLAVNA Epaimahaia. Zinema eta ikus-entzunezkoen munduan adituak diren pertsonak izanen dira kide. Ikus-entzunezko formatuan proposamenik onena aitortzen duen akzesitaren talde irabazlea aukeratuko du, Lehiaketara aurkeztu diren hautagaitzen artean.

8.

ALDERDI FORMALAK

Sariak formalki ADItech Corporación Tecnológica-k emanen ditu, eta Nafarroako Gobernuak eta babesle gisa parte hartzea lagundu nahi duten beste entitate batzuek ere bai.

a. Konfidentzialtasuna.

Prozesu osoan bermatuko da aurkezten diren hautagaitzen konfidentzialtasuna. Horretarako, Konfidentzialtasunezko Akordioak egingen dira epaimahaikide guztiekin.

Nolanahi ere, hautagaitzen ezaugarri orokorrak zabaltzen ahalko dira eta, bere garaian, proiektu irabazleen izenak, bakoitzaren logoa, jarduera eta lorpen nagusiak, bai eta talde sustatzailea osatzen duten kideen izenak ere.

b. Jabetza intelektualerako eskubidea eta irudi eskubidea.

SciencEkaitza 2019 Sarira aurkezten diren unean, hautagaitzek ADItech Corporación Tecnológica-ri lagako diote aurkezten dituzten ikus-entzunezko materialak erabili, itzuli, editatu, erreproduzitu eta jendaurrean ordainketarik gabe zabaltzeko eskubideak, bai eta eratorritako edukia sortzeko ere.

Talde bakoitzak egindako bideoak zuzenean ematen ahalko dira Gala egunean, hautagaitza finalisten hedapen eta aurkezpenera egiteko material gisa.

SciencEkaitza 2019 Lehiaketara hautagaitza batean aurkezten diren ikerlariak hautagaitzaren bideoak edukien gaineko irudi eskubideak lagako dituzte, bai Sariari Banaketa – Galan gonbidatu gisa parte hartzen dutenean, bai SciencEkaitzako ikerlari/lehiakide gisa, lotura duten beste ekitaldi batzuetan parte hartzen dutenean.

Aipatu ekitaldira joaten diren parte-hartzaileei argazkiak egiten ahalko dizkiete edo bideoan filmatzen ahalko dituzte. Material hori ADItechek erabiltzen ahalko du bai ikus-entzunezkoetan eta/edo SciencEkaitza ekitaldia ilustratzeko irudietan, eta halaber, sare sozialetan erabili, editatu eta zabaltzen ahalko da, edota Lehiaketaren irudia zabaltzeko beste xede batzuetarako, bai edizio honetan bai hurrengoetan.

Lehiakideek baimena ematen diote ADItech Corporación Tecnológicari beren izena eta SINAI barnean dituzten lantokiak erabiltzeko, eta baimena halaber, hautagaitzak etorkizunean egingen dituen ekintzen gaineko informazioa emateko.

Datuak ematean, proiektuak BERARIAZ ONARTZEN DITU arestian aipaturiko lagapena eta tratamendua. Datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu eta haien aurka jotzeko eskubidea erabil daiteke, posta elektroniko bat concurso@sciencekaitza.com helbidera bidaliz edo ADItecheko bulegoetara joanez, NANaren fotokopia bat eramanda. Taxoaren kalea, 20. 31006 Iruña (Nafarroa).

8.

ALDERDI FORMALAK

c. Izendapenen publizitatea.

Talde irabazleek izaera horren gaineko publizitatea egiten ahalko dute idazpuru, iragarki eta txostenetan, eta era berean, Sariak jaso izana argitaratu edo hedatu edozein hedabidetan.

Aipatu komunikazioetan SciencEkaitza aipatu beharko da espresuki marka gisa, zer urtetan izan ziren sarituak zehaztuta, eta halaber, ADItech Corporación Tecnológica aipatuta, ekitaldiaren sustatzaile eta antolatzaile gisa.

Akzesitei dagokienez, aipatu akzesitaren izen osoa adieraziko da, oinarriotako 4. atalean zehaztutakoarekin bat.

Nafarroako Gobernuak eta ADItechek talde irabazlearen, akzesiten eta izendatuen publizitatea egiten dute behar bezala, betiere egoki eta beharrezkotzat jotzen diren hedabide nazionaletan eta/edo eskualdekoetan, eta era berean, berrikuntza arloan bikaintasunari nahiz jardunbide egokiei buruzko adibideak behar diren plataforma guztietan.

d. Oinarriak onartzea.

Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarri guztiak onartu beharra; haien gaineko interpretazioa fase bakoitzeko epaimahaiari dagokio.

Oinarriotan adierazitako epeak eta prozedurak betetzen ez badira, parte-hartzaileari sariak gozatzeko aukera kenduko zaio.



SCIENCE II CONCURSO-GALA
KAITZA CIENTÍFICA DE NAVARRA

www.sciencekaitza.com